

Ama lurrari min egiten diolako ... SAKANA MAITE DUGULAKO...

AHTrik EZ

Sakanako



Alternativa E

Alternativa F

SAKANA

Itsaso-Ezkio



SAKANA MAITE DUGULAKO...

AHT-rik EZ!

Beriain, Aralar, Andia, Urbasa ... naturak inguraturiko lurralde paregabe bizi gara. Gure mendiek, ibai eta errekek, basoek ... inguru ederra osatzen dute. Gure lurraldeak eta sakandarron arteko harreman eta elkartasunak bizitza kalitate handia ematen digu. Gustoko dugu bertan bizitzea. Maite dugu Sakana.

Naturaz inguraturik bizi gara eta horregatik gure ama lurrarekiko errespetua ezinbestekoa dela uste dugu. Gaur egungo agintarien politikak gure lurra sal eta eros daitekeen produktu bat bezala ulertzen dute, dena da dirua eta horrek natura eta lurrarekiko errespetu eza baino ez du ekartzen. Politika hauen barnean koka dezakegu Abiadura Handiko Trena.

Obra faraoniko eta txikitzaile hau geure poltsikoetatik ordainduko dute eta Sakana bezalako hainbat lurralde eta natura orohar suntsitu egingen dute. Zertarako? Zergatik? Ez dakigu eta herritarrok ezin dugu gai honen inguruan eztabaidatu edo erabaki ahal. Funtsik gabeko arrazoiak ematen dizkigute; denon onerako da, garapena ezin da gelditu, atzean geldituko gara... AHT GELDITU! ELKARLANAtik argi daukagu zer egin behar den egitasmo honekin. Gelditu, eta pentsatu. Ze mundu nahi dugu? Ze Sakana nahi dugu?

AHTrik gabeko Sakana nahi dugu. Uste dugulako gure ingurua zaindu eta errespetatu behar dugula. Gauzak beste modu batean egin behar direlako eta ama lurrarekin elkar bizi behar dugulako. Proiektu erraldoi honen aurrean ezin gara ixilik eta geldi geratu. Mugitu egin behar gara. Altu eta ozen ezetz esan, hau ez dela bidea, Sakana sano eta eder bat nahi dugula.

Guzti honengatik, zuregana zuzendu gara zure atxekimendu eta babesa jaso asmoz. Sakanako jendea informatu eta sensibilizatzea ezinbestekoa da, are gehiago proiektu hau informazio eza eta inposizioaren bitartez aurrera eramaten ari diren momentu hauetan. Zu bezala, Sakanako beste hainbat pertsona ospetsu edo ezagunengana jo dugu (kirolari, idazle, artista ...), uste baitugu zeuen irudiak sakandar jendea esnatu eta mugitzeko balioko duela. Gainera zer datorkigun argi jakin behar dugu eta AHT-a gelditzea lortu behar dugu. Etorkizunean negar egin ez dezagun eta Sakana beti bezain irrifartsu ikus dezagun. Aldez aurretik eskerrak emanaz,

Sakanako



PORQUE AMAMOS SAKANA...

NO AL TAV!

Beriain, Aralar, Andia, Urbasa... vivimos en un entorno rodeado de naturaleza excepcional. Nuestros montes, ríos, bosques ... forman un conjunto realmente bello. Nuestra tierra y la relación y solidaridad entre las gentes de Sakana hacen de este valle una zona con una gran calidad de vida. Nos gusta vivir aquí y amamos Sakana.

Vivimos rodead@s de naturaleza y por eso, creemos imprescindible un respeto hacia ama lurra. Las políticas de nuestr@s gobernantes tratan a la tierra como una mera mercancía que se puede comprar y vender. Todo es dinero y la falta de respeto e indiferencia por nuestro entorno campa a sus anchas. Dentro de estas políticas se enmarca el Tren de Alta Velocidad.

Esta obra faraónica y destructora para con la naturaleza será costeadada con el dinero de tod@s y causará graves daños irreparables en zonas como Sakana. Pero, ¿para qué? ¿porqué?. L@s ciudadan@s no lo sabemos realmente y lo peor es que no nos dan ni siquiera opción para debatir, y mucho menos para decidir . Las razones que dan los gobernantes no tienen ni pies ni cabeza; que es bueno para tod@s, que no se puede parar el desarrollo, que nos quedaremos atrás... Desde AHT GELDITU!ELKARLANA tenemos muy claro qué hay que hacer con este proyecto. Parar. Y pensar. ¿qué mundo queremos? ¿Qué Sakana queremos?

Queremos una Sakana sin TAV. Creemos que debemos proteger y respetar nuestro valle. Porque las cosas hay que hacerlas de otra manera y debemos convivir con ama lurra. No debemos quedarnos parad@s ante este proyecto. Debemos movernos y andar. Gritar alto y fuerte que ese no es el camino, que queremos un valle sano y bello.

Por todo esto, nos dirigimos a ti para recibir tu adhesión y apoyo. Es imprescindible informar y sensibilizar a la gente de Sakana y creemos que tu imagen puede ser de gran ayuda. Así como a ti, nos hemos dirigido a gente conocida del valle (deportistas, escritores-as, artistas, ...), porque creemos que vuestra imagen puede servir de mucha ayuda para que la gente despierte y se mueva, más si cabe en estos momentos en los que la desinformación e imposición son los instrumentos con los cuales están llevando adelante este macroproyecto. Debemos ser conscientes de la que se nos viene encima y tenemos que parar el TAV. Porque entre tod@s es posible. Para que en un futuro no tengamos que llorar, para que siempre veamos Sakana, nuestro valle, natural y sonriente. Eskerrik asko de antemano,

Sakanako

